



NI ERE IZAN NAITEKE BENETAKO SUPERHEROI

Jarduera honekin, zera lortu nahi dugu

Eskuzabaltasunaren, Errespetuaren eta Elkartasunaren balioak une oro gauzatzea.

Beharko dugun materiala

Kontrolerako koadrantea (tamaina handian inprimatu eta gelan ondo ikusten den leku batean jarri).

Iraupena

Gutxienez lau asteko iraupena izango du jarduerak, baina hezitzaileak egindako plangintzaren arabera izango da.

Aurretiatzko oharra

Maiz gogorarazi beharko ditugu balio bakoitzari lotutako helburuak, eta adierazi beharko dugu garrantzitsua dela helburu horiek betetzea:

Helburua: Elkartasuna

- Zaindu egiten ditut ikasgelako materialak, eta ikasgela txukun eta garbi izaten laguntzen dut.
- Ikasgelan eta jolastokian, lagundu egiten diet laguntza behar dutenei.

Helburua: Errespetua

- Bileretan, beti errespetatzen ditut hitz egiteko txandak.
- Adi-adi entzuten dut besteek esaten dutena.

Helburua: Eskuzabaltasuna

- Ikasgelako materialak, jolasak eta jostailuak besteekin partekatzen ditut.

Aste bakoitzaren bukaeran, helburuak zenbatek bete dituzten kontuan hartuta, pegatinak mantentzen dituzten ikasleak zenbat diren zehaztuko dugu. Ez dugu inoren izenik idatziko, kopurua bakarrik. Horrela, ikuspegi orokorragoa izango dugu jardueraren garapenari dagokionez, eta ikasleek helburuak betetzeari dagokionez.

Balio bakoitza, dagozkion helburuekin, bereiz kontabilizatuko dugu astero. Horrek esan nahi du aste horretan balio baten pegatina mantentzea lortu badute ere, ikasleek balio horri dagozkion helburuak betetzen jarraitu beharko dutela, bestela galdu egingo baitute pegatina.

Garbi utzi behar da ez dela nahikoa hiru pegatinak lortzea; garrantzitsua da pegatinak denek mantentzea eta balioek eskatzen duten moduan jarduteko ahalegina egitea.

1. fasea: Jardun dezagun balioak betez

Jarri gelan **kontrolerako koadrantea**. Esan neska-mutilei Benetako Superheroien Akademiako pegatinak mantendu ahal izateko, zutabeetan agertzen diren helburuak bete beharko dituztela, eta hainbat astez egingo dugula jarduera.

Bukatzeo, hausnar dezagun

Aste bakoitzaren bukaeran, bileran, panela erreparatu eta galdera hauek egin:

- Zer pegatina mantendu dituzue aste honetan? Zergatik?
- Zer pegatina ez dituzue mantendu? Zer egin behar duzue pegatina horiek mantentzeko?

Benetako superheroiak beren eginkizuna betetzeko prest egoten dira beti.

Kontrolerako koadrantea

	Elkartasuna Helburuak: <ul style="list-style-type: none">● Ikasgelako materialak zaintzea, eta ikasgela txukun eta garbi izaten laguntzea.● Laguntza behar dutenei laguntzea.	Errespetua Helburuak: <ul style="list-style-type: none">● Bileretan, hitz egiteko txandak errespetatzea.● Besteek esaten dutena entzutea.	Eskuzabaltasuna Helburuak: <ul style="list-style-type: none">● Besteekin partekatzea.
1. astea			
2. astea			
3. astea			
4. astea			